

FUNTSEZKO JARDUERAK

Gure proiektua behar bezala funtzionatzeko, hainbat aktibitate burutu behar ditugu. Lehentasuna produkzioari ematen diogu, hau da, aplikazioaren garapena, eguneratzea eta funtzionalitateak bermatzea (ikasketa-denboran beste aplikazioak blokeatzea, larrialdietako deiak onartzea, eguneko planifikazioa eta ikaskuntza-metodoak eskaintzea). Horrez gain, edukien diseinua ere garrantzitsua da: irakasleek material akademikoak sortzen dituzte eta psikologoek erlaxazio eta kontzentrazio teknikak garatzen dituzte, horrela ikasleentzat edukiak seguruak eta eraginkorrak izanik.

Bigarrenik, arazoak konpontzeko jarduerak funtsezkoak dira, hala nola aplikazioaren mantentzea, akatsen zuzenketa eta erabiltzaileen laguntza teknikoa eskaintzea.

Azkenik, plataforma eta sarearen jarduerak aplikazioaren erabilgarritasuna eta hedapena bermatzen dute; ordainketa digitalak kudeatzen edota hezkuntza zentroekin eta orientatzaileekin lankidetzeta eta marketina egiten. Erabiltzaile berriak erakartzeko eta egungoak mantentzeko. Jarduera batzuk kanporatu daitezke (adibidez diseinu grafikoa edo marketina), baina aplikazioaren garapena eta edukien sorkuntza akademiko eta psikologikoa, ezin dira delegatu, proiektuaren oinarria direlako.

Horrela, aktibitate hauek guztiak burutuz, STUDY-SMARTER funtzionamendu egokia izango du eta ikasleen beharrei modu eraginkorrean erantzun ahal izango diegu.